

MUSIKA BULEGOAREN JASANGARRITASUN PLANA

(EHMBE - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak)

 **BILIBIN**ekin

AURKIBIDEA

1.SARRERA	4
1.1. Aurrekariak	5
1.2. Laburpen exejutiboa	6
2.TESTUINGURUA	7
2.1. Etorkizun jasangarria	8
2.2. Estrategiak eta ekintza-esparruak	9
2.3. Kultura eta jasangarritasuna	11
2.4. Musikaren ingurumen inpaktua	13
3.DIAGNOSTIKOA	14
3.1. Metodologia	15
3.2. Musika Bulegoaren jardueren analisia	17
3.3. Analisi orokorra	24
3.4. Jasangarritasuna indartzeko potentziala	25
4.PROPOSATURIKO PLANA	27
4.1. Helburuak	28
4.2. Jasangarritasun akzioak	31
4.3. Lehentasunezko ekintzak	36
5.KARBONO AZTARNAREN NEURKETA	37
5.1. Metodologia: PIMEC Kalkulagailua	38
5.2. Ezarpena	39
6.ERRONKA GARBIA	43
6.1. Ekitaldi jasangarriagoak	44
6.2. Erronka Garbia: laguntza-tresna	45
7.JARDUNALDIA	47
7.1. Helburuak	48
7.2. Formatua	48
7.3. Kontu praktikoak	48

1.SARRERA

1.1. Aurrekariak

Musika Bulegoa Euskal Herriko jarduera musikala sustatzeko eta babesteko lan egiten duen erakundea da. Bere helburu nagusia eskualdeko musika-industriaren sendotzea da, eta horretarako, musikariei eta sektoreko profesionalei aholkularitza eta prestakuntza eskaintzen dizkie funtsezko arloetan, hala nola banaketa digitalean eta finantzaketan. Era berean, euskal musika indartzeko eta zabalkunde handiagoa izan dezan, ekitaldi eta jardunaldiak antolatzen ditu, sariak eta sektoreko profesionalen arteko topaketak barne. Gainera, artistei beren musika Euskal Herritik haratago zabaltzen laguntzen die, nazioarteko presentzia sustatuz.

Musika Bulegoak erreferente izan nahi du musika-sektorean, eta horretarako, eredugarritasuna eta kontzientziazioa sustatzen ditu. Azkenaldian, dirulaguntza eskaeretan jasangarritasun-planen eskaria gero eta handiagoa dela antzeman dute. Horren aurrean, beren errealitatera eta beharretara egokitutako jasangarritasun-plan bat garatu eta komunikatu nahi dute, errealista, aplikagarria eta gauzagarria izango dena.

Horretarako, Bilibinek hasierako diagnostiko bat egingo du enpresaren jasangarritasun-egoera ebaluatzeko. Azterketa honetan energia, garraioa, hondakinak, lehengaiak eta ekitaldiak bezalako arlo giltzarriak aztertuko dira. Ebaluazioaren ondoren, helburu argi eta eskuragarriak ezarriko dira, inpaktua murrizteko, mugikortasun jasangarria sustatzeko eta baliabideen erabileran eraginkortasuna hobetzeko. Horiek guztiak jasoko dituen ekintza-plan bat diseinatu da. Horrez gain, talde osoarentzako prestakuntza eta sentsibilizazio-saio bat egin da, jasangarritasunaren garrantziaz kontzientziazteko.

Azken emaitza gisa, Jasangarritasun Plana aurkeztuko da, eta bertan hasierako ebaluazioa, ezarritako helburuak, aplikatu beharreko estrategiak, jarraipen-sistema eta emaitzen komunikazio-estrategia jasoko dira.

1.2. Laburpen exejutiboa

Musika Bulegoa, Euskal Herriko musika industria sustatzeko sortutako erakundeak, jasangarritasun plana garatu du bere jarduerak ingurumenean duen inpaktua murrizteko helburuarekin. Ekimen hau gauzatzen da dirulaguntza eskaeretan gero eta gehiago jasangarritasuna eskatzen delako, baina batez ere, erakundeak musikaren sektorean erreferente izan nahi duelako.

Testuinguruan, mundu mailako klima-larrialdi egoeran, IPCCren arabera 2030erako isurien %45eko murrizketa eta 2050erako "zero garbia" lortzea ezinbestekoa da. Kulturaren sektoreak, musika barne, ingurumen inpaktu nabarmena du, batez ere zuzeneko emanaldietan, non musikaren industriaren berotegi-efektuko gasen %75a sortzen den.

Diagnostikoan ikusi da Musika Bulegoaren ingurumen inpaktu nagusia mugikortasunean dagoela (langileen eta kolaboratzaileen bidaiak), tokiko hornitzaileekin lan egitea eta materialen digitalizazioa positiboki baloratzen direlarik. Gainera, sektorearen sentsibilizaziorako potentziala nabarmendu da.

Proposatzen den planak hiru ardatz estrategiko ditu: Musika Bulegoa jasangarritasunaren erreferente bihurtzea, musika-sektorean praktika jasangarriagoak ezartzea, eta musika-sektorea aldaketa sozial eta klimatikoaren eragile bihurtzea. Zazpi ekintza-ildo definitu dira: emisio baxuko mugikortasuna, energia berriztagarria, zero zabor, elikadura jasangarria, tokiko ekonomia, karbono-neutraltasunerantz pausoak, eta sentsibilizazioa.

Plana bi ardatz izango ditu. Lehenengoan, barne-garapenean zentratuko da: karbono aztarna neurtuko da, eta ekitaldi jasangarriagoak izango dira. Bigarrenean, sektorerantz zabalduko da: sentsibilizazio jarduerak egingo dira, baliabideak eskainiko dira eta beharrak identifikatuko dira.

Planaren jarraipen eta kudeaketarako talde arduradun bat izendatuko da, eta emaitzak komunikatzeko estrategia bat diseinatuko da, bai barnera begira, bai kanpora begira. PIMEC kalkulagailua erabiliko da karbono aztarna neurtzeko.

Musika Bulegoak, bere jardueretan jasangarritasuna txertatuz, euskal musikaren sektorearentzat eredugarri izan nahi du, musikaren aztarna ekologikoa murrizteko bidean.

2. TESTUINGURUA

2.1. Etorkizun jasangarria

2.1.1. Planetaren larrialdia

Giza jarduerak klima-aldaketa azkar eta ukaezina eragiten ari da, eta hurrengo bi hamarkadetan 1,5 °C-tik gorako igoera aurreikusten da, batez ere erregai fosilen errekuntzaren ondorioz. Beroketa hori geldiarazteko, funtsezkoa da zero emisio garbiak (Net Zero) lortzea, hau da, berotegi-efektuko gasen isuriak nabarmen murriztea eta geratzen direnak ekosistema naturalen edo karbonoa atzemateko teknologien bidez xurgatzea. IPCCren arabera, isuri globalak %45 murriztu beharko lirateke 2030erako, eta 2050erako zero garbira iristea funtsezkoa da, energia-trantsizioari eta ekoizpen eta kontsumo ohituren aldaketari lehentasuna emanez.

Klima-aldaketa ezin da modu isolatuan landu, biodibertsitatearen galera, kutsadura eta ekosistemen degradazioarekin estuki lotuta baitago. Horri aurre egiteko, ekonomia globala birpentsatuko duten irtenbide sistemikoak eta sistemak lehengoratzeko neurriak behar dira. Horretarako estrategia eraginkorrenetako bat ekonomia zirkularra da, baliabideen erabilera efizientea sustatzen duena berrerabiltzea, konpontzea eta birziklatzea bultzatuz, hondakinak ahalik eta gehien murriztuz.

2.1.2. Garapen jasangarria

Garapen jasangarriaren helburua giza garapena ahalbideratzea da, aldi berean, sistema naturalek ekonomiarentzat eta gizartearentzat funtsezkoak diren baliabideak eta zerbitzuak babestuz. Horrek, besteak beste, gune historiko eta kulturalen kontserbazioa dakar, bizi-baldintzak eta baliabideen erabilera modu arduratsuan kudeatuz. Helburua etorkizuneko belaunaldien premiak arriskuan jarri gabe, egungo beharrak asetzea da.

Askotan jasangarritasuna ingurumenarekin lotzen bada ere, izatez hiru dimentsio ditu eta horien arteko oreka funtsezkoa da, jasangarritasuna ahalbideratzeko. Hiru dimentsio hauek ondorengoak dira:

Ingurumen-jasangarritasuna

Giza jardueren eta biodibertsitatearen arteko oreka bilatzen du, ekosistemen kontserbazioa sustatuz eta ingurumenaren degradazioa saihestuz. Dimentsio hau funtsezkoa da beste bien egonkortasunerako.

Gizarte-jasangarritasuna

Gizarte-kohesioa eta komunitateen gaitasuna indartzen ditu, helburu komunak lortzeko eta inpaktu negatiboak saihesteko. Aldi berean, edozein jardueraren inpaktu positiboak bultzatzen ditu.

Jasangarritasun ekonomikoa

Ingurumen- eta gizarte-jasangarritasuna sustatzen duten ekintzak ekonomikoki bideragarriak eta errentagarriak izan behar dira, iraunkortasuna bermatzeko.

Hazkunde ekonomikoaren, ingurumenaren babesaren eta gizarte-ongizatearen arteko oreka funtsezkoa da edozein proiektu jasangarria izan dadin. Dokumentu honen ikuspegiaren arabera, ingurumen-jasangarritasunari lehentasuna emango zaio, baina errentagarritasuna eta gizarte- eta lan-kontziliazioa ere ezinbesteko elementuak dira edozein proiekturen iraunkortasunerako.

2.2. Estrategiak eta ekintza-esparruak

2.2.1. Jasangarritasunaren nazioarteko esparrua

COP21 eta Parisko Akordioa

COP21 eta Parisko Akordioa klima-alaketaren aurkako borrokan mugarri garrantzitsuak izan ziren. 2015ean 196 herrialdek berretsi zuten, eta 2016an jarri zen indarrean. Akordioaren helburua tenperatura globalaren igoera 2 °C baino gutxiagora mugatzea da, 1,5 °C-ko muga hobetsiaren barruan mantenduz. Horretarako, herrialde sinatzaileek berotegi-efektuko gasen emisioen gailurra lehenbailehen lortu eta XXI. mendearen erdialderako klima-neutroa izango den ekonomia globala eraikitzeko konpromisoa hartu zuten. Akordioa nazioarteko klima-diplomazian erreferente bihurtu zen, herrialde guztiei emisioak murrizteko eta klima-alaketaren ondorioetara egokitzeko konpromiso irmoa eskatuz. Horrez gain, gardentasuna, kontuak ematea eta konpromisoak eguneratzeko mekanismoak ezarri zituen, ekonomia eta gizarte-sistemak eraldatzeko eta karbono gutxiko ekonomiaranzko trantsizio bidezkoa sustatzeko.

Garapen jasangarrirako helburuak (GJH)

2030 Agenda Nazio Batuen ekimen global bat da, pobrezia ezabatu, planeta babestu eta guztiontzako bakea eta oparotasuna bermatzeko. 193 herrialdek onartu zuten. Garapen jasangarria lortzeko ezinbestekoa da, besteak beste, gizarte behartsuenen eta ahulenen premiak asetzea. 17 helburu eta 169 xede biltzen ditu, eta ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren dimentsioak modu osatuan lantzen ditu. Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) ekintzarako deia dira, gobernuen, sektore pribatuaren, gizarte zibilaren eta herritarren arteko lankidetzak globalaren bidez etorkizun jasangarri eta inklusiboagoa eraikitzeko.

- | | |
|---|---|
| → Pobrezia desagertzea | → Hiri eta Komunitate jasangarriak. |
| → Goserik ez. | → Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak. |
| → Osasuna eta ongizatea. | → Klimaren aldeko ekintza. |
| → Kalitatezko hezkuntza. | → Itsaspeko bizitza. |
| → Genero-berdintasuna. | → Lehorreko ekosistemako bizitza. |
| → Ur garbia eta saneamendua. | → Bakea, justizia eta erakunde sendoak. |
| → Energia irisgarria eta ez kutsagarria. | → Helburuak lortzeko aliantza. |
| → Lan duina eta hazkunde ekonomikoa. | → Kultura eta hizkuntza aniztasuna. |
| → Industria, berrikuntza eta azpiegitura. | |
| → Desberdintasunak murriztea. | |

2.2.2. Jasangarritasuna Europar Batasuna eta Euskal Herria

Europako Itun Berdea

Europako Itun Berdea 2019an sortu zen, Europar Batasuna ekonomia jasangarri eta lehiakorrago baterantz bideratzeko. Bere helburu nagusiak 2050erako emisio garbiak ezabatzea, hazkunde ekonomikoa eta baliabideen kontsumoa bereiztea, eta bidezko trantsizioa bermatzea dira. Itunak 2030.eko emisioak %55 murrizteko konpromisoa hartu du eta horretarako Fit for 55 izeneko neurri-sorta garatu du, klima, industria, garraioa eta energia jasangarriak sustatzeko. Helburua da Europa klima-neutroa izango den lehen kontinentea bihurtzea, ingurumenaren babesa ongizate ekonomiko eta sozialarekin uztartuz.

Basque Green Deal

Basque Green Deal (BGD) Eusko Jaurlaritzak 2021.ean aurkeztutako eta Europako Itun Berdearen printzipioekin bat egiten duen ituna da. Itunaren helburu nagusiak emisioak murriztea eta energia berriztagarria sustatzea dira, industria, teknologia eta ekonomia zirkularra ardatz hartuta. Estrategiak hainbat lan-ildo ezartzen ditu, hala nola energia garbiena erabilera, industria jasangarria, mugikortasun jasangarria, biodibertsitatearen babesa eta elikadura-sistema osasungarriak indartzea.

Horrez gain, Euskadik, IHOBEn bidez Ekonomia Zirkularraren Estrategia garatu du, ekonomia jasangarriago baterantz aurrera egiteko. 2030.eko helburu nagusien artean, ondorengoak daude: materialen produktibitatea eta erabilera-tasa %30 handitzea, hondakin-sorrera %30 murriztea eta plastikozko ontzien %100 birziklagarriak izatea. Plan honek, ingurumenaren babesa ez ezik, ekonomia eta enplegurako aukera berriak sortzea ere bilatzen du.

2.3. Kultura eta jasangarritasuna

2.3.1. Garapen jasangarria eta kultura

Kulturak beste sektore ekonomikoek bezala ingurumen-inpaktua ere badu, emisioak eta hondakinak sortzeaz gain, baliabide naturalak ere kontsumitzen baititu. Horregatik, praktika jasangarriagoak ezarri eta ingurumen-inpaktua murriztea ezinbestekoa da.

2030 Agendan kultura helburu espezifiko gisa ez dagoen arren, hezkuntza, hiri jasangarriak eta elikagaien segurtasuna bezalako arloetan zeharka txertatuta dago. Bestalde, IPCCren azken txostenek erakutsi dute kultura- eta jokabide-aldaketek klima-trantsizioan funtsezko rola dutela. Industria sortzaileek, bereziki musikak, gizartea sentsibilizatzeko eta balio jasangarriak zabaltzeko ahalmen handia dute. Kultura gizateriarentzako etorkizun jasangarria irudikatzeko esperimentazio-gunean bihurtu behar da.

Azkenik, biodibertsitatearen eta kultura-aniztasunaren arteko lotura funtsezkoa da. Klima-aldaketarekin batera, lurzoruaren kutsadura, hondakin-sorrera eta baliabideen eskasia bezalako arazoek biodibertsitatea galtzea eragin dute. Horregatik, Nazio Batuek biodibertsitatearen erabilera jasangarria babestu eta kultura-jardunbide tradizionalekin uztartu beharra azpimarratu dute. Balio-sistemak elkartasunera, aniztasunarekiko errespetura eta berdintasunera egokitu behar dira, Garapen Jasangarrirako Helburuen barruan.

2.3.2. Euskal Herrian kultura jasangarria

Euskadiko kultura plan estrategikoa

Euskadiko Kultura 2028 Plan Estrategikoak 2030 Agendaren helburuak barnertazen ditu, kultur politikan gobernuak duten konpromisoa zehaztuz. Estrategiak euskararen eta euskal kulturaren garrantzia nabarmentzen du, bai eskualde-identitatearekin, baita esparru globalean ere.

Planak pandemiak kulturaren sektorearen hauskortasuna agerian utzi zuela aitortzen duen arren, erakundeek eta herritarrek arteko lankidetzaren bidez indartzea proposatzen du. Horretarako, kultura etengabeko elkarriketarako tresna bihurtzea planteatzen da.

Klima-larrialdia eta ingurumenarekiko kezka lehentasun estrategikotzat jotzen dira, eta, ondorioz, ekoizpen-sistemak berrikustea eta jasangarritasuna sustatzea funtsezko ardatz gisa ezartzen dira. Kulturak eta kultura-produktuek ingurumen-sentsibilizazioan eta ikuspegi jasangarriaren aldaketan zeregin erabakigarria dute. Hori dela-eta, kultura-erakundeek jasangarritasuna beren jardueran txertatu behar dutela ondorioztatzen da, ekoizpenetik ekitaldien antolaketara, ingurumena zaintzeko konpromiso irmoarenekin.

Nafarroako kultura plan estrategikoa

Nafarroako Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak Kulturaren Plan Estrategiko berria onartu du, 2028.era arte burutuko diren jardueren ildo nagusiak zehaztuz. Plana hamar ildo estrategikotan egituratzen da, eta hamargarren ildoak kulturaren transbertsalitateari eta lurralde-ikuspegiari dagokio. Helburua kultura garapen jasangarriko politiketan integratzea eta ingurumenarekiko errespetuzko praktikak sustatzea da

Nouvelle-Aquitaineko kultura jasangarriko ibilbide-orria


Nouvelle-Aquitaine eskualdeak ere urrats garrantzitsua eman du kultura eta trantsizio ekologikoa uztartzeko. Eskualdeak kulturaren bidez eta kulturarentzat trantsizio ekologikorako ibilbide-orri berezia onartu zuen (Feuille de route pour la transition écologique de la culture et par la culture). Dokumentu hau lankidetzaz zabal baten emaitza izan da.

Ibilbide-orriak sei konpromiso biltzen ditu, eta eskualdeko ekosozio-kondizionalitateekin bat dator. Nahiz eta zuzeneko eragin ekonomikorik ez izan, kultur politikaren aurrekontu orokorraren barruan aplikatuko da. Helburu nagusien artean mugikortasunaren inpaktu negatiboak murriztea, baliabide naturalen eta digitalen erabilera jasangarriagoa sustatzea, eta ondare natural babestuen balioa azpimarratzea daude, baita eskualdearen eraldaketa-prozesuei laguntza ematea ere.

2.4. Musikaren ingurumen inpaktua

Musika sektoreak ingurumenean eragin handia du, bereziki zuzeneko ekitaldietan eta artisten biretan. Ekitaldi hauetan garraio eta baliabideen kontsumo nabariak ematen dira. Sektorearen inpaktuaren azterketak, musikaren ekoizpenetik zuzeneko ekitaldietara, hainbat alderdi hartzen ditu kontuan.

Erresuma Batuan egindako ikerketa baten arabera, musika industriaren berotegi-efektuko gasen emisioen %75 inguru zuzeneko emanaldietan gertatzen dira. Gainerako inpaktu nagusiak musika grabatzerakoan eta argitaratzekoan ematen da.



Bestalde, aire zabaleko jaialdietan kasu, bertaratutako pertsonen mugikortasuna da emisioen iturri nagusia, elikagai eta edarien ekoizpena eta kontsumoa jarraiki. Horrez gain, hondakinen kudeaketak eta energia-kontsumoak ere karbono-aztarnan eragina dute. Kontzertu-aretoetan ere, bertaratutakoen mugikortasunak eragiten du emisio gehien, erosketak eta energia-kontsumoak jarraitzen dielarik. Bi kasuetan, mugikortasuna da eragin handiena duen faktorea.

Artisten biretan, emisioen iturri nagusia langileen eta publikoaren bidaiak eta garraioa dira, eta inpaktua ekitaldiaren eskalaren eta hartutako praktika jasangarrien arabera alda daiteke. Musikaren grabazio-prozesuan, musika-euskarrien fabrikazioak ere emisio nabariak sortzen ditu.

Azkenik, nahiz eta ingurumen-inpaktuari buruzko azterketa zehatzik ez egon, kontuan hartu behar da musika- eta bideo-streamingak energia eta banda-zabaleraren kontsumo handia egiten duela, karbono-aztarnean eragin zuzena izanik.

3.DIAGNOSTIKOA

3.1. Metodologia

3.1.1. Erakundeen ingurumen-inpaktua

Erakundeek, haien sektorea edozein dela ere, ingurumen-inpaktua eragiten dute beren jardueren bidez: energia eta baliabide naturalen kontsumotik, hondakinen sorrera eta berotegi-efektuko gasen emisiora arte. Erakundeen jardunak ekosistemaren orekan eragina du. Klima-krisiaren eta ingurumenaren degradazioaren testuinguruan, funtsezkoa da erakundeek jasangarritasun-estrategiak ezartzea. Horri esker haien aztarna ekologikoa murriztea eta ekoizpen- eta kontsumo-eredu arduratsua ezartzea ahalbideratuko dute.

Ingurumen-diagnostikoa da inpaktu hori ulertu eta kudeatzeko lehen urratsa. Prozesu honek baliabideen erabilera, hondakin-sorrera, emisio kutsatzaileak eta jardueren jasangarritasunari eragiten dioten beste faktore batzuk ebaluatzen ditu. Diagnostikoaren bidez, funtsezko puntu kritikoak identifikatu, lehentasunak ezarri eta aztarna ekologikoa murrizteko estrategiak diseinatzen dira.

Musika Bulegoarentzako (MB) egindako diagnosia ez da kuantitatiboa izan, heuren jardueraren datu ekonomikoen analisisian eta programen eta jardueren ezaugarrietan oinarritutako ikuspegi hartuz garatu da. Metodo honek MBren ingurumen-inpaktuaren ikuspegi orokorra eskaintzen du, modu azkar eta eraginkorrean lehentasun nagusiak ezartzeko adinako informazioa emanez.

3.1.2. Hasierako bilera eta elkarrizketak

2024.eko azaroan, Musika Bulegoaren (MB) langile guztiekin bilera bat antolatu zen, erakundearen jardura eta ingurumen-inpaktua aztertzeko. Topaketa honek MBren jardueren azterketa orokorra egiteko eta diagnostiko-prozesuaren hurrengo urratsak zehazteko balio izan zuen. Bileran honetan, jardura nagusiak identifikatu eta bakoitzaren arduradunak esleitu ziren, ondorengo elkarrizketak modu egituratuan bideratzeko.

Jardura eta programen inguruko xehetasunak jasotzeko, bideodeien bidezko elkarrizketak egin ziren MBko arduradunekin. Elkarrizketak sistematikoki dokumentatu ziren, diagnostikoaren analisi-irizpideekin bat etorritik.

3.1.3. Analisi irizpideak

Jardura eta programa bakoitza ikuspegi integratu batetik aztertu zen, honako irizpideen arabera:

- **Deskribapena:** Jardueraren edo programaren ezaugarri nagusiak.
- **Ingurumen-inpaktu nagusiak:** Garraioa, bidaiak, energia-kontsumoa eta ingurumenarekin lotutako beste faktore erabakigarriak.
- **Martxan dauden jasangarritasun-neurriak:** Dagoeneko aplikatzen ari diren ekimen eta praktika onak.
- **Erronkak eta aukerak:** Ingurumen-inpaktua murrizteko identifikatutako zailtasunak eta hobekuntza-aukerak.
- **Sensibilizazio-potentziala:** Jardura edo programak sentibilizazio eta pedagogia tresna gisa duen ahalmena publikoarentzat.

3.2. Musika Bulegoaren jardueren analisia

3.2.1. Urteko jarduera

Deskribapena

MB sei pertsonako talde batek osatzen du, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako langileekin. Erakundeak lan egiteko eredu malgua du, eta langile gehienek etxetik egiten dute lan. Hala ere, hilero bilera orokor bat egiten da, eta urtean 20 aldiz inguru, lan-talde txikietan ere biltzen dira.

MBko lantalde nagusiak hiru dira:

- Administrazioa eta Gerentzia
- Komunikazioa
- Proiektuak eta Zerbitzuak

Proiektuak eta zerbitzu nagusiak hauek dira:

- Sustapena (MB Sariak, Focus-taldeak, Soinu Iratzarri, etab.)
- Kanpo Zabalkundea
- Formakuntza
- Aholkularitza
- Sormena
- Bitartekaritza

Urteko lan-zikloa aldakorra da, jarduera-intentsitatearen arabera. Uda lasaiagoa izaten da, baina udazkenean ekitaldi ugari antolatzen dira, hala nola BIME eta Durangoko Azoka. Udaberrian sariak, azokak eta bestelako ekitaldiak izaten dira.

MBk ez du egoitza propiorik, baina Renterriako Musika Eskolak bulego bat utzi die, espazio hori puntualki erabiltzeko. Ez da argindarraren fakturarik ordaintzen. Erakundeak honako ekipamendua erabiltzen du: ordenagailuak, mugikorrak eta iPad-ak.

Musika Bulegoko langileek eta kolaboratzaileek sarri bidaiatzen dute, bai programen barruan, bai urteko ekintzetan. Bidaiatutako kilometroen datuak jasotzen dira, baina oraindik ez dago kontrol eta kontabilitate zorrotz bat. Programa batzuetan eta urteko jardueretan, janari-gastu puntualak ordaintzen dira.

Ingurumen-inpaktuak

- **Mugikortasuna:** Langile guztiek urtean hainbat aldiz elkartu behar dute, baita ekitaldietara bidaiatu ere.
- **Energia-kontsumoa:** Erakundeak ez du egoitza propiorik, eta langile bakoitzak bere etxetik lan egiten du. Beraz, energia-kontsumoaren kontrola mugatua da.
- **Merchandising eta material inprimatua:** Markaren presentzia mantentzeko boligrafoak, botilak eta antzeko produktuak erabiltzen dira, baina horien eragina mugatua da. Bestalde, urtekariaren inprimaketa murriztu egingo da aurtun.
- **Inprimaketa:** Dokumentazio gehiena digitala da, eta oso gutxi inprimatzen da. Salbuespen gisa, azoka eta ekitaldi puntualetan katalogoak inprimatzen dira.
- **Hondakinak:** Erakundearen jardueran sortzen den hondakin kopurua oso txikia da.

Martxan dauden neurriak

- Hornitzaileen hautaketa tokian tokiko hornitzaileak lehenetsiz egiten da, jarduerak egiten diren lekuetan, garraioaren inpaktua minimizatzeko.
- Mugikortasun jasangarria sustatzeko aukera aztertzen ari dira, batez ere kapitaletan egiten diren topaketetan, garraio publikoa sustatuz.
- Urtekariaren kopuru inprimatua murriztu egingo da, paper-kontsumoa gutxitzeko.
- Musika artxiboa digitalizatuta dago, material fisikoaren sorrera ekidinez.

Erronkak eta Aukerak

- Mugikortasunaren inpaktua murriztea, batez ere bidai kopurua optimizatuz eta garraio publikoa bultzatzeko neurriak aztertuz.
- Energia-kontsumoaren gaineko kontrola mugatua da, erakundeak ez baitu egoitza propioa, hala ere energia berdearen aukerak sustatu daitezke.
- Merchandisingaren erabilera mugatua bada ere, edonola markaren presentzia bermatu behar da. Hau bideratzeko alternatiba jasangarriak arakatzea.
- Kilometrajeen erregistro zehatzago bat egitea, mugikortasunaren inpaktua neurtzeko eta murrizteko estrategiak ezartzeko.

Sentsibilizazio-potentziala

- Langileen mugikortasun-eredu jasangarriak sustatzeko aukera dago, garraio publikoaren erabilera bultzatuz.

3.2.2. Musika Bulegoa sariak

Deskribapena

Musika Bulegoa Sariak MBaren sustapen-proiektu garrantzitsuenetako bat da. 2025.ekoa zazpigarren edizioa izango da. Sarien helburu nagusia euskal musikaren ekoizpena ikusaraztea eta sustatzea da. Sari hauek sektoreko ekitaldi garrantzitsuenetakoa izanik, aurrekontu handia eta antolakuntza-lan luzea dute. Sarietan sektoreko eragile publiko eta pribatua nagusiak biltzeaz gain, eragin handiko topaketa da. Ekitaldiaren berezitasunetako bat ibiltaria dela da, urtero Euskal Herriko lurralde ezberdin batean ospatzen delarik, sari-banaketa eta ekitaldiak lurralde guztietara barreiatuz.

Ekitaldiaren sari-banaketak ordubete inguruko iraupena du. Ondoren, parte-hartzaileen elkarrekintzarako eta networking-erako, catering zerbitzua eta musika-emanaldia eskaintzen da.

Ekitaldiaren antolakuntza hainbat fasetan banatzen da. Lehenik eta behin artistei deialdia irekitzen zaie, jarraian epaimahaia bilatzen eta osatzen delarik. Sariak, oro har, sektore profesionalera bideratuta daude. Antolakuntza aldetik hainbat alderdi koordinatu behar dira, hala nola garbiketa- eta segurtasun-langileak, catering zerbitzua, eszenografia eta diseinu grafikoa. Horrez gain, MBko langileen eta batzordeko kideen ostatua, dietak eta bidaiak antolatu behar dira. Ekitaldian erabilitako baliabide teknikoak, oro har, antzoki edo aretoaren azpiegiturarenak izaten dira.

Ingurumen-inpaktuak

- **Mugikortasuna:** Batez ere ekitaldira bertaratuko direnena, eta zuzenago MBko langileen eta batzordeko kideen joan-etorriak.
- **Ostatuak:** MBko langileen eta batzordeko kideen ostatu-beharrak.
- **Energia-kontsumoa:** Ekitaldirako behar den argiztapena eta azpiegitura teknikoen erabilera.
- **Catering-a:** Janariaren eta edariaren ekoizpenak eta hondakinek sortutako inpaktua.

Martxan dauden neurriak

- Ingurumen-inpaktua murrizteko hornitzaile lokalak lehenesten dira, hala nola catering-enpresak eta inprentak.

Erronkak eta Aukerak

- Erronka nagusia mugikortasuna da, ekitaldiak pertsona askoren joan-etorriak eskatzen baitu.
- Merchandising-aren kudeaketa: Objektuak ez banatzeko eta inprimaketa minimizatzeko irizpideak mantentzeko, zer eskaini erabaki behar da.

Sentsibilizazio-potentziala

- Ekitaldia bai sektorearentzat, bai gizartearentzat ikusgarria da.
- Jasangarritasunaren aldeko mezua indartzeko aukera nabaria dago, bai ekoizpen-prozesuan, bai saritutako proiektuen hautaketa eta aurkezpena egiterakoan.

3.2.3. Kanpoko zabalkundea

Kanpoko Zabalkuntza zerbitzuaren bidez, MBk euskal musika nazioartean sustatzen du, azoketan parte hartuz, showcase-ak eta artistentzako egonaldiak antolatuz. Urtero dozena bat bidai egiten dira, batez ere udaberrian eta udazkenean, udan jarduera gutxiago egoten delarik.

Bidaiak egun berean edo bezperan egiten dira, normalean hegazkinez, nahiz eta posible denean autoa edo trena lehenetsi. Bidaien kudeaketa bidai-agentzia baten bidez egiten da, eta ostatuak ekitaldiaren gertutasuna lehenetsiz hautatzen dira, helmugan desplazamenduak minimizatzeko.

Musika Bulegoak ez du material promozionalik ekoizten paperean, informazioa iPad bidez erakusten da. Hala ere, WOMEX (Manchester) eta BIME (Bilbo) azoketan stand propioa eraikitzen da. BIMEko standa antolatzaileek eraikitzen dute.

Azoka batzuetan ETXEPARE erakundearekin lankidetzan, 30-40 minutuko showcase-ak antolatzen dira. Horrez gain, urtero bi egonaldi artistiko antolatzen dira: Azpeitian, Ipar Euskal Herriko talde bat sustatzeko; eta BIME Lisboa, Euskal Herriko talde baten nazioarteko proiektzioa bultzatzeko.

Ingurumen-inpaktuak

- **Mugikortasuna:** Hegazkin bidezko bidaiak dira nagusi, bai langileentzat, bai artistei dagokienez.
- **Ostatuak:** Langileen eta artisten egonaldiak ekitaldien gertutasunean egiten dira, baina horrek ere ingurumen-inpaktua du.
- **Stand-eraikuntza:** Azoketarako stand-ak sortzeak material-kontsumoa eta hondakin-sorrera dakar.

Martxan dauden neurriak

- Mugikortasunaren inpaktua murrizteko trena lehenesten da hegazkinaren aurretik, betiere posible denean.
- Ostatuak ekitaldien gertutasunean aukeratzen dira, helmugan beharrezko desplazamenduak minimizatuz.
- Ez da material promozionalik ekoizten paperean, informazioa tablet bidez erakusten da, hondakinak murrizteko.
- WOMEXen koktel bat antolatzen da, eta Euskal Herriko produktuak eskaintzen dira; produktuen garraioa MBko langileek egiten dute.

Erronkak eta Aukerak

- **Mugikortasunaren inpaktua murriztea:** Batez ere hegazkin-bidaien kasuan.
- **Promozio-materialaren optimizazioa:** Jendeak material fisikoa eskatzen duenez, modu jasangarrian ekoizteko aukerak aztertzea.
- **Showcase eta egonaldien jasangarritasuna:** Artisten mugikortasuna eta ostatua optimizatzeko neurriak aztertzea.

Sentsibilizazio-potentziala

- Showcase eta egonaldi artistikoen antolaketan, artistak sensibilizatzeko aukera dago, haien jarduera jasangarriago bihurtzeko neurriak planteatuz eta praktikak partekatuz.

3.2.4. Formakuntzak

Deskribapena

Formakuntza-zerbitzuaren helburua musika-sektoreko kalitate maila eta profesionaltasuna bultzatzea da. Saio gehienak online eskaintzen dira, baina batzuetan aurrez aurreko saioak ere antolatzen dira. Formakuntzak egun bateko saio laburrak izaten dira; 2024.ean sei saio egin ziren, eta etorkizunean kopurua handitzea aurreikusten da.

Ingurumen-inpaktuak

- **Mugikortasuna:** Aurrez aurreko formakuntzek joan-etorriak eskatzen dituzte.
- **Catering-a:** Presentzialeko saioetan, parte-hartzaileentzat catering zerbitzua eskaintzen da.

Martxan dauden neurriak

- Formakuntza online egitea lehenesten da, mugikortasunaren inpaktua murrizteko.
- Aurrez aurreko saioen catering-a ekitaldia egiten den espazioko taldearen esku uzten da.

Erronkak eta Aukerak

- Aurrez aurreko saioetan garraio jasangarria sustatzea, parte-hartzaileek garraio publikoa edo bidaia partekatua erabil dezaten bultzatzeko neurriak aztertuz.

Sentsibilizazio-potentziala

- Formakuntzaren bidez jasangarritasun-gaiei buruzko prestakuntza barneratzeko aukera.
- Musika-sektorean praktika jasangarriak zabaltzeko tresna gisa balio dezake.

3.2.5. Focus-taldeak

Deskribapena

Sustapena programaren helburua euskal musika-sektorearen beharrak identifikatzea da, sektorearen egoera eta erronkak ulertzeko behatoki moduko tresna gisa funtzionatuz. Programa honen bidez, fokus-taldeak (focus group) antolatuko dira identifikatutako erronkak lantzeko, eta horretarako, sektoreko eragileekin bilerak antolatzen dira. Orain arte, bilerak eta jarduerak modu intuitiboan antolatu izan dira, baina aurrerantzean, metodologia egituratuago bat erabiliko da, lurralde bakoitzean fokus-taldeak eratuz. Talde hauetan subsektore ezberdinetako eta jatorri anitzeko profesionalak biltzen dira, ikuspegi aberatsagoa lortzeko. Bilera gehienak presentzialak izaten dira.

Ingurumen-inpaktuak

- **Mugikortasuna:** Bertaratutako profesionalen joan-etorriak, bereziki bilerak presentzialak direnean.
- **Espazioen erabilera:** Bilera eta topaketak egiteko azpiegituren energia-kontsumoa.

Martxan dauden neurriak

- Fokus-taldeak lurralde ezberdinetan antolatzen dira, eragileen desplazamenduak murrizteko.

Erronkak eta Aukerak

- Mugikortasunaren inpaktua murriztea: Bilera guztiek presentzialak izan behar al dute? Formatu mistoak edo digitalak bultzatu daitezke?
- Dibertsitatea eta inklusioa bermatzea: Eragile ezberdinen parte-hartzea sustatuz, sektoreko ikuspegi zabala jasotzeko.
- Jasangarritasun-irizpideen integrazioa: Topaketa eta ekitaldien ekoizpenean ingurumen-neurriak kontuan hartzea.

Sentsibilizazio-potentziala

- Musika-sektorean jasangarritasuna integratzeko aukera eskaintzen du, eragileei ingurumen-kontzientziatorako espazio bat eskainiz.
- Praktika jasangarriak barneratzeko espazio bihur daiteke, parte-hartzaileekin hausnarketak eta proposamenak landuz.

3.2.6. Komunikazioa

Deskribapena

Kanpo-komunikazioa prentsa-oharren bidez lantzen da, baina prentsaurrekoak ez dira egiten. Komunikabideekin harremana finkatzeko, EITB, BERRIA eta Grupo Noticias-ekin akordioak dituzte, bai edukiak zabaltzeko, bai publizitatea kontratatzeko. Babesleen bilaketa etengabeko lana da, eta horretarako hainbat kolaborazio aukera lantzen dira. Bestalde, Durangoko Azokan jardunaldi profesional bat antolatzen da, musikariak eta musika-programatzaileak elkartzeko gune gisa.

Musika Bulegoak 2025-ean 10. urteurrena ospatuko du, eta horretarako ekitaldi korporatibo bat antolatuko da. Aldi berean, marka eta webgune berriak garatzen ari dira, irudi independenteagoa erakusteko asmoz.

Ingurumen-inpaktuak

- **Komunikazio materialak:** Digitalak nagusi dira, baina batzuetan publizitate inprimatua egiten da.

Martxan dauden neurriak

- Komunikazio digitala lehenesten da, paperezko materiala minimizatuz.

Erronkak eta Aukerak

- Publizitate-material fisikoa minimizatzea.
- Jasangarritasun-irizpideak dituzten babesleak bilatzea.

Sentsibilizazio-potentziala

- Babesleen eta komunikabideen bidez jasangarritasun-mezuak zabaltzea.

3.2.7. Soinua Iratzarri

Deskribapena

Soinua Iratzarri Musika Bulegoaren eta Musikagileak elkartearen proiektu bat da, Gipuzkoako eskola publikoetako 150 ikasleri zuzendua. Haurrak musika garaikidearen konposizio-prozesuan parte hartzen dute, eta amaieran, sortutako piezak musikariek eta ikasleek elkarrekin interpretatzen dituzte. Programak eskoletako lan-saioak eta amaierako bi kontzertu barneratzen ditu.

Ingurumen-inpaktuak

- **Mugikortasuna:** Mugikortasuna: Konpositoreen, koordinatzaileen eta Musika Bulegoko ordezkarien joan-etorriak.
- **Materialak:** Partiturak eta atrilak erabiltzen dira saio eta kontzertuetan.

Martxan dauden neurriak

- Mugikortasuna modu koordinatuan kudeatzea, joan-etorriak murriztuz.

Erronkak eta Aukerak

- Mugikortasun jasangarria sustatzea konpositoreen eta antolatzaileen bidaia optimizatuz.

Sentsibilizazio-potentziala

- Musikaren bidez ingurumen-kontzientzia sustatzeko aukera, sorkuntza eta jasangarritasuna uztartuz.

3.2.8. Beste jarduerak

Deskribapena

Musika Bulegoak musikaren sektorea sustatzeko hainbat jarduera eta proiektu osagarri garatzen ditu, besteak beste:

- **Bitartekaritza:** Euskal Herriko, Espainiako eta Europako erakunde publiko zein pribatuekin harremanak mantentzea, musika-sektorearen interesak ordezkatzuz eta topaketetan parte hartuz.
- **Aholkularitza:** Sektoreko profesionalentzako aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen dira, Ainara Legardon (autoretza eskubideetan aditua) eta Sinpa (arlo lealetan espezializatua) enpresen bidez.
- **Sentsibilizazio-ekimenak:** Musikarekiko interesa eta sentsibilizazioa sustatzeko ekintzetan parte-hartzen da, hala nola Musikaren Eguna eta LGTBQ+ kolektiboarekin lotutako ekimenak.

Gainera, 2025an bi proiektu berri antolatuko dira. Proiektu hauek antolatzean, jasangarritasun-irizpideak kontuan hartzea komenigarria izango da.

- **MUST +PRO Topaketa:** Euskal Herriko musika-sektorearen bi eguneko topaketa presentziala. Helburua da profesionalen eta enpresen arteko lankidetzak eta eskarmentu partekatzea bultzatzea.
- **Erakusketa Ibiltaria:** Musika-sektorearen inguruko erakusketa berria.

Ingurumen-inpaktuak

- **Mugikortasuna:** Erakunde publiko eta pribatuekin bilerak eta topaketak egiteak joan-etorriak eskatzen ditu.
- **Materialak:** Edozein elementu ekoizteko unean, ingurumen-inpaktuak sortzen dira.

Martxan dauden neurriak

- Ekitaldiak tokian tokiko hornitzaileekin antolatzen dira, garraioaren inpaktua minimizatzeke.

Erronkak eta Aukerak

- Bidaien kopurua optimizatzea, online bilerak gehiago baliatuz.

Sentsibilizazio-potentziala

- Ekitaldi batzuk ingurumen-kontzientzia hedatzeko gune aproposa izan daitezke.

3.3. Analisi orokorra

3.3.1. Ondorio nagusiak **Mugikortasuna: inpaktu nagusia**

Musika Bulegoaren jarduerak ingurumen-inpaktua sortzen dute, batez ere mugikortasuna, energia-kontsumoa eta materialen erabilera direla medio. Inpaktu handieneko faktorea, bai langileentzat, bai parte-hartzaileentzat bidaiak eta ekitaldien joan-etorriak dira.

Martxan dauden neurriak eraginkorrak dira

Inpaktua murrizteko martxan dauden neurri batzuk eraginkorrak dira. Hornitzaile lokalak lehenesten dira, dokumentuak eta artxiboak digitalizatzen dira, eta online bilerak eta ekimenak sustatzen dira joan-etorriak saihesteko.

Erronka nagusia: mugikortasuna

Etorkizuneko erronka nagusiak, ondorengoak dira:

- Mugikortasunaren inpaktua gutxitzea, garraio publikoa lehenetsiz eta hegazkin-bidaiak optimizatuz.
- Energia berriztagarrien erabilera indartzea.
- Markaren presentzia jasangarri bihurtzea.

Bestalde, kilometrajeen erregistro zehatza egitea funtsezkoa da, mugikortasun-inpaktua neurtu eta murrizteko estrategiak ezartzeko.

Sentsibilizazio-potentziala nabaria da

MBk sektoreko komunikazio eta ekitaldien bidez jasangarritasuna sustatzeko aukera paregabea du. Bere ikusgarritasuna aprobetxatuz, ingurumen-mezuak zabaldu eta praktika jasangarriak ezarri daitezke, musika-sektorean eredu positibo bat ezarriz.

3.3.2. **Jardueren pisu ekonomiko erlatiboa**

Musika Bulegoaren jardueretan, gastu nagusiak lau ataletan bana daitezke: giza baliabideak, proiektuen gastuak, hornitzaileak eta energia-kontsumoa. Proiektuen baitan, ekoizpen-lanak, hornitzaileei egindako ordainketak, garraioa eta komunikazio-gastuak dira alor nagusiak.

Gastu espezifikoagoak proiektu bakoitzaren arabera aldatzen dira. Hornitzaileei lotutako gastuak, ekoizpen teknikoko eta materialetako gastuak, komunikazio-kanpainen kostuak, dietak, bidaiak eta ostatu-gastuak kontuan hartu behar direlarik.

MBaren ekintza pisu handiena duten proiektuak hauek dira:

- **Urteko jarduera**
- **Musika Bulegoa Sariak**
- **Kanpoko Zabalkundea**

Kanpoko zabalkuntzaren barruan, BIME Bogota, BIME Bilbo eta WOMEX azokek inbertsio handia eskatzen dute, batez ere mugikortasun eta ekoizpen-gastuei dagokienez. Soinua Iratzarri ere proiektu garestienetako bat litzateke, musika garaikidea hurrekin sustatzeko lau hilabeteko prozesu bat barne hartzen duelako.

3.4. Jasangarritasuna indartzeko potentziala

Jarduerak eta haien jasangarritasuna bultzatzeko potentziala

Jarduera, programa	Potentziala		Pisu ekonomiko erlatiboa
	Deskarbonizazioa	Sentsibilizazioa	
Musika Bulegoa sariak	ALTUA	ALTUA	ALTUA
Urteko jarduera	ALTUA	BAXUA	ALTUA
Kanpoko zabalkundea	ALTUA	BAXUA	ALTUA
Formakuntzak	ERTAINA	ALTUA	BAXUA
Komunikazioa	BAXUA	ALTUA	BAXUA
Soinua Iratzarri	BAXUA	BAXUA	ERTAINA
Beste jarduerak	BAXUA	BAXUA	BAXUA

3.4.1. Deskarbonizazioa MBren deskarbonizazioa ingurumen-inpaktua murrizteko estrategia gisa ulertzen da, erakundearen jardueretan jasangarritasuna txertatzeko eta inpaktu negatiboak minimizatzeko tresna gisa. MBren hainbat jarduerak ingurumen-inpaktu nabarmenak sortzen dituzte, hauek gehienetan mugikortasunarekin, energia-kontsumoarekin eta materialen erabilerarekin lotuta daudelarik.

- Deskarbonizazioan eragin handiena duten faktoreak hauek dira:
- **Mugikortasuna:** Langileen eta parte-hartzaileen joan-etorriak.
 - **Energia-kontsumoa:** Ekitaldi eta jardueretan erabiltzen den energia.
 - **Materialak eta zerbitzuak:** Komunikazio-materialak, catering-a eta beste zerbitzu osagarriak.

- Hobekuntza-aukerarik handienak dituzten jarduerak honako hauek dira:
- **Musika Bulegoa sariak:** Ekitaldiaren antolaketa optimizatuz inpaktua murrizteko aukera dago.
 - **Kanpoko zabalkuntza:** Bidaia optimizatzea eta baliabideak modu jasangarriagoan kudeatzea funtsezkoa da.
 - **Urteko jarduera:** Energia-kontsumoa eta mugikortasuna hobetzeko neurriak aztertu daitezke.

3.4.2. Sentzibilizazioa

MBk musika sektorean eta publikoan jasangarratasun praktikak ahalbideratzeko gaitaun handia du. Ekitaldi eta programen bidez, praktika arduratsuak sustatu ditzazke eta sektorean eredu bihurtzeko aukera dago.

Eragin handiena izan dezaketen jarduerak hauek dira:

- **Musika Bulegoa sariak:** Sektoreko eragile eta publiko zabalarengana iristeko aukera ematen duen plataforma izanik, jasangarritasun-mezuak zabaltzeko tresna indartsua da.
- **Formakuntzak:** Musika-sektorean praktika jasangarriak bultzatzeko aukera dago, prestakuntza-saioen bidez.
- **Komunikazioa:** Erakundearen ingurumen-inpaktua modu garden batean neurtu eta sektore osoari eredu gisa aurkezteko aukera eskaintzen du.

Musika Bulegoak ingurumen-inpaktua murriztearekin batera, sektorean eragin positiboa izateko gaitasuna du, eta horrek musika eta jasangarritasuna uztartzen dituen estrategia integratu bat ezartzeko aukera zabaltzen du.

4. PROPOSATURIKO PLANA

4.1. Helburuak

4.1.1. Ardatz Estrategiakoak

MBn jasangarritasun-plana hiru ardatz estrategikotan oinarritzen da. Helburu hauek epe luzerako ildoak markatzen dituzte, etorkizuneko ekintzak bideratuz eta MBren misioarekin bat eginez. Erakundea jasangarritasunaren erreferente bihur dadin, plana MBren jardueretan eta programetan integratzea da xedea.

Musika Bulegoa jasangarritasunaren erreferente bihurtzea

- Etengabeko hobekuntza-plan bat garatzea.
- Ingurumen-inpaktua neurtzeko eta murrizteko neurriak ezartzea.
- Lortutako emaitzak komunikatzea.

Musika-sektorean lagundu praktika jasangarriagoak ezarri

- Ingurumen-inpaktuaz sentsibilizatzea.
- Sektoreren esparru guztietan jasangarritasuna sustatzea.

Musika-sektorea aldaketa sozial eta klimatikoaren eragile bihurtzea

- Jasangarritasuna eta klima-ekintza sustatzeko jarrera proaktiboa bultzatzea.
- Eragile eta erakundeen arteko lankidetzak eta partaidetzak sustatzea.
- Publikoari ingurumen-erronken inguruko kontzientzia piztea eta ekintza kolektiboa sustatzea.

4.1.2. Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH)

Musika Bulegoaren jarduerak Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) lotura zuzena dute, kulturaren eta musikaren bidez garapen jasangarria sustatuz. Bere programen bidez, lan duina eta hazkunde ekonomikoa beramaten du, jasangarritasunaren aldeko aliantzak indartzen ditu, eta hizkuntza- eta kultura-aniztasuna babesten du.

GJH 5 - Genero-berdintasuna

Genero-berdintasuna funtsezkoa da gizarte bidezko eta jasangarri baterako. Musika Bulegoak genero-berdintasunaren aldeko konpromisoa sendotu du bere jardueran eta programen bidez, emakumeen eta genero-aniztasuneko pertsonen ikusgarritasuna eta aukerak sustatuz.

GJH 8 - Lan duina eta hazkunde ekonomikoa

Helburu honek lan-baldintza egokiak bermatzea eta ekonomiaren sektore ezberdinetan hazkunde jasangarria sustatzea du xede. Musika Bulegoak musika-sektorearen profesionalizazioa eta garapena bultzatzen du, lan-baldintzak hobetzeko eta kultur industriaren jasangarritasuna sendotzeko estrategiak sustatuz. Sustapen, formakuntza eta bitartekaritza programen bidez, sektoreko profesionalen gaitasunak indartu eta ekosistema kulturala sendotzen du.

GJH 17 - Helburuak lortzeko aliantzak

Garapen jasangarria bultzatzeko ezinbestekoa da lankidetzak sendoa izatea eragile, erakunde eta sektoreen artean. Musika Bulegoak sektoreko eragileekin eta erakundeekin elkarlana sustatzen du, ingurumenaren aldeko neurriak ezarri eta zabaltzeko. Hainbat eragileekin eta nazioarteko azokekin egindako lankidetzak kulturaren eta ingurumen-kontzientziaren sustapena indartzen dute, sektorearen eragin-eremua zabaltuz.

GJH 18 - Kultura eta Hizkuntza Aniztasuna

Kultura eta hizkuntza-aniztasuna funtsezko elementuak dira gizarte bidezko eta jasangarri bat eraikitzeko. Musika Bulegoaren jarduerak GJH 18rekin bat egiten dute, euskal musikaren sorkuntza eta zabalkundea babestuz. Bere egitasmoen bidez, euskal kultura eta hizkuntza-aniztasuna nazioartean ezagutarazi eta indartzen ditu.

4.1.3. Ekintza-ildoak

Emisio baxuko mugikortasuna

Bidaie eta garraioaren optimizazioa, karbono-aztarnaren murrizketa

MBren ingurumen-inpaktu nagusietako bat pertsonen joan-etorriek eragiten dute, bai langileen mugikortasunak, bai ekitaldietara egindako bidaiak. Mugikortasun jasangarriak sustatzeak ingurumen-inpaktua gutxitzeaz gain, kostuak murriztu eta jardueren kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du.

Emisio baxuko mugikortasuna

Bidaie eta garraioaren optimizazioa, karbono-aztarnaren murrizketa

MBren ingurumen-inpaktu nagusietako bat pertsonen joan-etorriek eragiten dute, bai langileen mugikortasunak, bai ekitaldietara egindako bidaiak. Mugikortasun jasangarriagoa sustatzeak ingurumen-inpaktua gutxitzeaz gain, kostuak murriztu eta jardueren kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du.

Energia berriztagarria eta efizientea

Energia garbia eta soluzio efizienteak erabiliz kontsumoa optimizatzea

MBren jasangarritasun-estrategiaren funtsezko elementuetako bat energia-kontsumoa optimizatzea eta iturri berriztagarriak lehenestea da. Efizientzia-neurriak ezartzeak CO₂ emisioak murrizteaz gain, kostu ekonomikoetan aurrezteak ere ahalbidetzen du.

Hondakin gabeko eredurantz, zero zabor

Baliabide berrerabilgarriak lehenestea eta hondakinak minimizatzea

MBren helburuahondakinak minimizatzea eta berrerabilgarriak lehenestea izan beharko du. Hondakinak ezinbestean sortzen direnean, bereizketa eta kudeaketa egokiak bermatuko dira, erantzukizunez eta modu jasangarrian tratatzeko.

Elikadura jasangarria

Ingurumen-inpaktua txikia duen elikadura osasungarria eta lokala sustatzea

MBk antolatzen dituen ekitaldietan, elikadura jasangarriaren aldeko konpromisoa finkatu ahal da. Tokiko eta kalitatezko produktuak aukeratzeak CO₂ emisioak murrizten ditu, baliabideak optimizatzen ditu eta hondakinak gutxitzen laguntzen du.

Tokiko ekonomia

Hornitzaile lokalekin lankidetzan sakontzea

Hornitzaile jasangarriekin lan egiteak ekonomia lokala indartzen du eta eragin sozial positiboa du. Halaber, lan-ingurune positiboagoa sortzen laguntzen du.

Karbono-neutraltasunerantz

Neurtu, murriztu eta konpentsatu emisioak

Karbono-aztarnaren neurketak ingurumen-inpaktua ebaluatu eta hobetzeko aukera eskaintzen du. Konpentsazio-neurriek emisioak denboran zehar xurgatzeko ekimen jasangarriak bultzatzeko aukera ematen dute.

Sentsibilizazioa

Sektorearen eta gizartearen eraldaketan parte hartzea

Musika-sektoreak jasangarritasunaren sustapenean eta gizarte-eraldaketan zeregin garrantzitsua izan dezake. Praktika jasangarriak bultzatzea funtsezkoa da, sektorean aldaketa eragiteko eta inpaktua murrizteko. Bestalde, kulturaren bidezko kontzientziaketa eta ekintza kolektiboa bultzatzeko aukera dago, gizartean eta sektorean ikuspegi jasangarriago bat sendotzeko.

Adierazleak eta ebaluazioa

Neurtu, hobetu eta komunikatu

Jasangarritasunaren inpaktua neurtzeko adierazle argiak ezartzeak, planaren aurrerapenak monitorizatzea eta lortutako lorpenak komunikatzea ahalbidetuko du. Neurketa hauek ingurumen, gizarte eta ekonomia arloetan egingo dira, MBren jarduera orokorrean eta programen mailan.

4.2. Jasangarritasun akzioak

Jarduerak eta jasangarritasun ekintza-ildoak

EMISIO BAXUKO MUGIKORTASUNA	MB JARDUERAK					
	Urteko jarduerak	Musika Bulegoa sariak	Kanpoko zabalkundea	Komunikazioa	Formakuntza	Beste jarduerak
Emisio baxuko mugikortasuna						
Energia berriztagarria eta efizientea						
Hondakinik gabeko eredurantz, zero zabor						
Elikadura jasangarria						
Tokiko ekonomia						
Karbono neutraltasunerantz						
Sentsibilizazioa						
Adierazleak eta ebaluazioa						

4.2.1. Urteko jarduera

Garraio publikoa erraztea

Talde-bilerak aurrez aurre egiterakoan, garraio publikoa lehenestea sustatuko da. Gainera garraio jasangarriagoaren erabilera handitzeko, bilerak egiten diren tokietan mugikortasun jasangarriaren aukerei buruzko informazio argia emango da.

%100 berriztagarria den energia kontsumitzea

MBk langileen etxeko energia-gastuaren % bat bere gain hartuko ditu, betiere langileek energia berriztagarria kontratatzen badute. Neurri honek energia-kontsumoaren inpaktua minimizatuko du eta sektorean praktika jasangarriak zabaltzeko aukera emango du.

Karbono-aztarna neurtzea

Karbono-aztarna periodikoki kalkulatzea funtsezkoa izango da emisio-foku nagusiak identifikatzeko eta horien murrizketa sustatzeko. Diagnostiko honek MBren plana hobetzeko, jasangarritasunarekiko konpromisoa frogatzeko eta lortutako emaitzak modu eraginkorrean komunikatzeko tresna baliotsua izango da. Neurketa honen barne jarduera nagusiak kontuan hartuko dira:

- Urteko jarduera
- Musika Bulego sariak
- Kanpoko zabalkuntza

Emisioen Konpentsazioa

Baso-berritze, kontserbazio edo energia berriztagarrien proiektuetan inbertitzeak eragiten den aztarna ekologikoa murrizten laguntzen du. Neurri honek ez ditu dagoeneko sortutako emisioak ezabatzen, baina ingurumenarekiko konpromisoa sendotzen du eta karbono-neutraltasuna lortzeko bidean lagungarria da.

Urteko jasangarritasun-saio monografikoa

Urtero ingurumen-inpaktua aztertzeko bilera bat egingo da, non lortutako emaitzak aurkeztu eta ezarritako neurriak ebaluatuko diren. Helburua etengabeko hobekuntza bultzatzea eta taldea inplikatzeko da.

Adierazleak

- **T CO₂ eq:** Urteko karbono-aztarna osoa kalkulatzea, Musika Bulegoaren jarduera guztietatik eratorritako emisioak neurtzeko.
- **T CO₂ eq/pertsona:** Ekintzetan parte hartu duten pertsonen arabera karbono-aztarna neurtzea, jarduera bakoitzaren eragina ebaluatzeko.
- **Denboran zeharreko bilakaera aztertzea:** Aurreko urteetako datuekin alderaketa eginez, hobekuntzak ebaluatu eta jarraipen eraginkorra bermatzea.

4.2.2. Musika Bulegoa Sariak

Musika Bulegoa Sariak ekimen zehatz eta inpaktu handiko ekitaldia da, eta horregatik, jasangarritasun-plan propio bat garatzeko aukera du. Ekitaldi jasangarriago bat antolatzeak ingurumen-inpaktua murrizteaz gain, sektorean eredu positiboa sortzea eta jasangarritasunaren aldeko konpromisoa bistaratzen du.

Ekitaldiaren ziurtagiria

- Erronka Garbia edo antzeko ziurtagiria lortzea, MB Sarien jasangarritasuna ofizialki bermatzeko.

MB jasangarritasun saria

- Urteko artista, talde edo enpresa jasangarria saritzea, jasangarritasunaren alde egindako ekimenak bistaratuz.
- Ekitaldian jasangarritasun-ekintzak bistaratzea, publikoari kontzientzia sortzeko espazioak eskainiz.

Emisio baxuko mugikortasuna

- Ibilgailu partekatua sustatzea: Bertaratzen diren pertsonen autoak partekatu ahal izateko plataformak edo informazio-tresnak eskaintzea.
- Garraio publikoa erraztea: Ekitaldiaren kokapenera iristeko garraio jasangarrien aukerak argi komunikatzea eta sustatzea.

Energia berriztagarria eta efizientea

- %100 berriztagarria den energia erabiltzen duten espazioak lehenestea.
- Egonaldi jasangarriak bermatzea, ingurumen-ziurtagiridun ostatuak lehenetsiz.

Elikadura jasangarria

- Menu begetariano eta osasungarriak lehenestea.
- Haragi gorria kentzea, haren karbono-aztarna handia dela eta.
- Km0 produktuak erabiltzea, tokiko hornitzaileekin lan eginez.

Hondakinik gabeko eredurantz

- Hondakinak ahalik eta gehien murriztea eta berrerabilgarriak zein alokagarriak diren konponbideak lehenestea.
- Hondakinak behar bezala kudeatzeko bereizketa-sistema ezartzea.
- Ekitaldietan eta jardueretan ontzi eta mahai-tresna berrerabilgarriak erabiltzea.

Tokiko ekonomia

- Hornitzaile lokal eta jasangarriak aukeratzea, ekitaldiaren eragin ekonomikoa hurbileko ingurunean uzteko.
- Catering jasangarria bermatzea, jasangarritasunarekin konpromiso argia duten enpresak lehenetsiz.

Adierazleak

- Ekitaldiaren ziurtagiria
- Publikoaren asistentzia
- **T CO₂ eq**: MB sarien karbono-aztarna osoa kalkulatzeko.
- **T CO₂ eq/pertsona**: Publikoaren araberako karbono-aztarna neurtzea.

4.2.3. Kanpo Zabalkundea

Trena eta autobusa lehenestea

Orain arte bezala, aireko garraioaren ordeztu, trena eta autobusa lehenetasunezko garraio bide gisa erabiltze.

Emisioen konpentsazioa

Bidaieko emisioak konpentsatzeak ez ditu dagoeneko sortutako emisioak ezabatzen, baina ingurumenarekiko konpromisoa sendotzen du eta karbono-neutraltasuna lortzeko bidean lagungarria da.

Ziurtagiridun ostatuak lehenestea

Ingurumen-ziurtagiri aitortuak dituzten ostatuak aukeratzea (ISO 14024, Biosphere, eta antzekoak). Ostatu hauek energia-eraginkortasun eta baliabide-kudeaketa arduratsua bermatzen dute.

Adierazleak

- **Parte hartutako azokak:** Urtean parte hartu den azokaren kopurua.
- **Kontaktatutako pertsonak:** Azoketan izandako interakzioen zenbatekoa.
- **T CO₂ eq:** Kanpoko zabalkuntzaren karbono-aztarna osoa kalkulatzeko.
- **T CO₂ eq/azoka:** Azoka bakoitzaren karbono-aztarna neurtzea, inaktua ebaluatu eta optimizatzeko.

4.2.3. Komunikazioa

Kalitatezko material promozionala

Hondakinean bihurtu ez daitezkeen material promozional jasagarriagoa diseinatzea eta eskaintzea.

Bestalde, plastiko eta erabilpen-bakarreko produktuak ezabatuko dira, alternatiba jasagarri eta iraunkoragoak lehenetsiz.

Jasagarritasunari buruzko prentsa-oharra

Bertan adierazle nagusiak partekatuko dira, jasagarritasunaren ikuspegitik egindako aurrerapenak eta lortutako datuak zabalatzeko. Horien artean garatutako murrizketa-neurriak aurkeztuko dira, karbono-aztarna eta ingurumen-inaktua nola murrizten ari den adieraziz. Azkenik etorkizuneko helburuak komunikatu dira, sektorea eta komunitatea jasagarritasun-bidean aktiboki

4.2.4. Formakuntza

Jasangarritasunari buruzko formakuntza

Rider Berdea, Bira Berde eta Live Berdea gidetan oinarritutako formakuntza espezifikoa, musika-sektoreko eragile ezberdinei zuzendua.

Emisio baxuko mugikortasuna

- Ibilgailu partekatua sustatzea: Bertaratzen diren pertsonen autoak partekatu ahal izateko plataformak edo informazio-tresnak eskaintzea.
- Garraio publikoa erraztea: Ekitaldiaren kokapenera iristeko garraio jasangarrien aukerak argi komunikatzea eta sustatzea.

Ekoizpen jasangarria

- %100 berriztagarria den energia erabiltzen duten espazioak lehenestea.
- Elikadura jasangarria sustatzea: Begetarianoa, Km0 produktuak eta karbono-aztarna txikia duten aukerak lehenestea.
- Hondakinik gabeko eredurantz aurrera egitea: Berrerabilgarriak lehenetsi, ontzien erabilera minimizatu eta hondakin-sorrera saihestu.

4.3. Lehentasunezko ekintzak

Musika Bulegoak bere jardueran jasangarritasuna txertatzeko konpromisoa hartu du, eta kudeaketa-mailan hainbat ekintza lehentasunezkotzat jotzen ditu. Plana bi ardatz nagusitan egituratuta dago, bakoitza bere ekintza eta kronograma espezifikoekin.

1. ardatz: jasangarritasunaren barne garapena

Erakundearen barne-jarduera jasangarriagoa izateko ekintza zehatzak ezarriko dira, Musika Bulegoaren ingurumen-inpaktua murrizteko eta eredugarritasuna sustatzeko.

EKINTZA	DESKRIBAPENA	DATA	ARDURADUNAK
Karbono aztarnaren neurketa	Musika Bulegoaren jardueraren karbono-aztarna neurtzea PIMEC tresnaren bidez, jarduera bakoitzaren ingurumen-inpaktua aztertu eta murrizteko estrategiak diseinatzeko	Udaberria 2025 - Negua 2026	Administrazioa eta gerentzia taldea
Erronka Garbia (MUST +PRO)	Mustpro topaketan Erronka Garbia ziurtagiria ezartzea, ekitaldi jasangarriaren eredu gisa	Udazkena 2025	MUST +PRO Taldea
Jarraipena eta ebaluazioa	Ezarritako neurrien emaitzak ebaluatzea eta hurrengo urterako hobekuntza-plana diseinatzea.	Negua 2026	Administrazioa eta Gerentzia

2. ardatz: Jasangarritasuna sektore zabalkundea

Sektore osoari zuzendutako ekintzak garatuko dira, Musika Bulegoak jasangarritasunaren inguruan erreferente gisa jokatzuz eta sektorean eraldaketa bultzatzeko tresnak eskainiz.

EKINTZA	DESKRIBAPENA	DATA	ARDURADUNAK
Jardunaldia: Musika eta ingurumen jasangarritasuna	Musika sektoreko eragileentzako online saioa, jasangarritasun tresnak eta praktika onak aurkezteko	Uda 2025	Bilibin + Komunikazio taldea
Komunikazioa	Lortutako emaitzen eta urteko ingurumen-inpaktuaren komunikazioa sektoreari, webgunean eta sare sozialetan	Negua 2026	Komunikazio taldea

5. KARBONO AZTARNAREN NEURKETA

Karbono aztarnaren neurketa funtsezko urratsa da Musika Bulegoak ingurumen-jasangarritasunarekiko duen konpromisoan. Prozesu honek erakundearen jarduera guztien inpaktu globala kuantifikatzea ahalbidetzen du, berotegi-efektuko gasen (BEG) isurketei dagokienez.

Kapitulu honek neurketa sistematiko bat ezartzeko esparrua ezartzen du, honako hauetan lagunduko duena:

- Erakundearen barruko isurketa-iturri nagusiak identifikatzea
- Murrizketa-helburu kuantitatiboak ezartzea
- Denboraren poderioz aurrerapenak monitorizatzea
- Gardentasuna eskaintzea interes-taldeei
- Dirulaguntzetan jasangarritasun-eskakizun gero eta handiagoei erantzutea

Neurketa honen irismena Musika Bulegoak garatutako jarduera guztiek hartzen dute, urteko jarduera, kanpo sustapena, prestakuntza eta komunikazioa barne; eta lehen fase batean sariak eta beste ekitaldi handi batzuk baztertzen dira.

5.1. Metodologia: PIMEC Kalkulagailua

Neurketa hau egiteko, PIMECen karbono aztarnaren kalkulagailua hautatu da, erakunde txiki eta ertainentzat berariaz diseinatutako doako tresna bat, kalkulu zorrotza baina eskuragarria ahalbidetzen duena. Tresna honek abantaila esanguratsuak eskaintzen dizkio Musika Bulegoari:

- Interfaze sinple eta intuitiboa
- Kostu ekonomikorik gabe
- Datuen biltegiratzea urteko bilakaeraren analisirako
- PDFan deskargatzeko txostenak sortzea
- Isurketak murrizteko gomendioak barne hartzen ditu

PIMEC kalkulagailuak isurketei buruzko hiru irispen nagusiak biltzen ditu:

1. **irismena:** Zuzeneko isurketak (ibilgailu propioak, ekipoa eta instalazioak)
2. **irismena:** Zeharkako isurketak energia elektrikoaren kontsumoagatik
3. **irismena (partziala):** Hautatutako zeharkako isurketak (kontratutako garraioa, negozio-bidaia, telelana)

→ Kalkulagailua [hemen](#) eskuragarri



5.2. Ezarpena

Musika Bulegoko taldearen barruan arduradun nagusi bat izendatuko da neurketa prozesua koordinatzeko, honako funtzio hauekin:

- Datuen bilketa koordinatzea
- Kalkulua PIMEC kalkulagailua erabiliz egitea
- Emaizen txostena barnean aurkeztea

Karbono aztarnaren neurketa urtero egingo da, kronograma hau jarraituz:

URTARRILA-OTSAILA

Aurreko
urteko
datuen
bilketa

MARTXOA

Kalkulua
eta emaitzen
aurkezpena

Helburuen eta
ekintza-

5.2.1. PIMECen bildu beharreko datu espezifikoak

Lehen fase honetan, kalkulua mugikortasunean (langileen ibilgailuak, lekualdaketak eta bidaiak) eta telelanean zentratuko da. PIMEC kalkulagailuaren egituraren arabera, Musika Bulegoak honako datu hauek bildu beharko ditu:

1. Datu orokorrak

Jarduera-unitatea: Musika Bulegoarentzat, unitaterik adierazgarriena "langile kopurua" izango da (6 pertsona).

- Unitate honek karbono aztarna erlatiboa kg CO₂e/langile bezala adierazteko balioko du.
- Erakundearen tamainan izan daitezkeen alaketetatik independenteki aztarnaren bilakaera aztertzeke aukera emango du.

2. Mugikortasuna eta garraioa

Lan-jarduerarako erabilitako ibilgailu propioak edo langileenak:

- Ibilgailu bakoitzak egindako kilometroak
- Ibilgailu mota eta erregaia
- Honako hauetarako lekualdaketak barne:
 - Taldearen hileko bilerak
 - Ekitaldi eta prestakuntzaetarako bidaiak
 - Jarduerak antolatzeke lekualdaketak

Negozio-bidaiak:

- Hegazkin-bidaiak: ibilbide bakoitza bidaiari kopuruarekin eta kilometroekin (edo guztirako batura gisa)
- Tren-bidaiak: ibilbide bakoitza bidaiari kopuruarekin eta kilometroekin (edo guztirako batura gisa)
- Autobus-bidaiak: ibilbide bakoitza bidaiari kopuruarekin eta kilometroekin (edo guztirako batura gisa)
- Taxiak eta alokairuko ibilgailuak: egindako kilometroak
- Bereziki garrantzitsuak:
 - Kanpo sustapenerako nazioarteko bidaiak (gutxi gorabehera 12 bidaia/urtean)
 - Langileen lekualdaketak aurrez aurreko bileretara

3. Elektrizitatea eta ura

Telelana edo partekatutako espazioak/coworking:

- Telelana egiten duten pertsonen kopurua
- Pertsonako urteko telelana egiten diren egunak

4. Beste energia-kontsumo batzuk

- Telelanarekin lotutako elektrizitate- eta ur-kontsumoa automatikoki sartzen da kalkuluaren datuak sartzen direnean; beraz, ez da beharrezkoa horiek bereizita kontabilizatzea.
- Musika Bulegoaren izenean elektrizitate- edo ur-fakturak izanez gero (ekitaldiekin, aldi baterako bulegoarekin edo beste edozein kontzepturekin lotuta), horiek gehigarri gisa sartu beharko dira kalkulagailuaren atal egokietan.

5.2.2. Analisia eta ekintza

PIMEC kalkulagailuak sortutako txostenak honako hauek emango ditu:

- Guztirako isurketak CO₂ baliokidearen tonatan
- Isurketa-iturriko banaketa
- Aurreko urteekin alderaketa (bigarren urtetik aurrera)
- Eraginkortasun-adierazleak (isurketak langile bakoitzeko)

Lortutako emaitzen arabera, ekintza-plan egituratua garatuko da, honako galdera giltzarri hauetatik abiatuta:

Zeintzuk izan dira inpaktu nagusiak?

Galdera honek honako hauek ahalbidetzen ditu:

- **Isurketa-iturri esanguratsuenak identifikatzea:** PIMEC txostenak grafikoki erakutsiko du zein arloek sortzen dituzten CO₂ isurketa gehien. Adibidez, isurketak %70 kanpo sustapenerako hegazkin-bidaetatik, %20 bileretara autoz joatetik eta %10 beste iturri batzuetatik datozela ikus liteke.
- **Kategorien arabera banaketa aztertzea:** Isurketak batez ere 1., 2. edo 3. irismenean kontzentratuta dauden ulertzea ahalbidetzen du.
- **Joerak aztertzea (bigarren urtetik aurrera):** Ikustea ea isurketak handitzen edo murrizten ari diren aurreko urtearekin alderatuta.

Zer ekintza egin daitezke horiek murrizteko?

Analisi honek honako hauetara eramango du:

- **Murrizketa-potentzialaren arabera ekintzak lehenestea:** Inpaktu handieneko eremuetan ahaleginak kontzentratzea emaitza hobeak lortzeko.
- **Bideragarritasuna eta inpaktua ebaluatzea:** Proposatutako ekintza bakoitza honako hauen arabera aztertzea:
 - Isurketak murrizteko potentziala (CO₂ tonak)
 - Ezarpen-kostua
 - Ezarpen-erraztasuna
- **Helburu kuantifikagarriak ezartzea:** Adibidez, "aireko lekualdatzeen isurketak %15 murriztea datorren urterako".

5.2.3. Komunikazioa

Karbono aztarnaren neurketaren emaitzak audientzia ezberdinekin partekatuko dira, bakoitzarentzat berariazko estrategien bidez.

Barne-taldea

Musika Bulegoaren barne-taldearekin emaitzen aurkezpen xehatua egingo da bilera berezi batean, non txosten osoa partekatuko den, hobekuntza-arloak nabarmenduz eta talde osoaren inplikazioa sustatuz konponbideak proposatzeko.

Kanpo-komunikazioa

Erakunde publiko eta finantzatzaileentzat, emaitzak urteko jardueramemorian sartuko dira, erakundearen gardentasun eta jasangarritasunarekiko konpromisoa nabarmenduz, baita dirulaguntzetan ezarritako ingurumen-betekizunen betetzea erakutsiz ere.

Musika-sektoreari dagokionez, Musika Bulegoak bere ikaskuntzak eta jardunbide egokiak partekatuko ditu sektoreko foroetan, kultura-erakundeetan ingurumen-inpaktua neurtu eta murriztu daitekeela erakutsiz eta sektoreko beste erakunde batzuk ekimen honekin bat egitera animatuz.

Publiko orokorrarekiko komunikazioa webgune eta sare sozialen bidez egingo da, datu bisualak erabiliz, hala nola grafikoak eta infografiak, ulermena errazteko eta emaitzak Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotuz.

5.2.4. Jarraipena

Etengabeko hobekuntza bermatzeko, Musika Bulegoak jarraipen-sistema bat ezarriko du, bi oinarri nagusitan oinarrituta:

- Urteko eguneratzea
- Ezarritako neurrien berrikuspena

Alde batetik, kalkulu osoaren urteko eguneratzea egingo da, metodologiaren koherentzia mantenduz, aldien arteko alderaketa fidagarriak egiteko, eta irismen edo kalkulu-metodoetan egon daitekeen edozein aldaketa esanguratsu dokumentatuz.

Bestalde, ezarritako neurrien eraginkortasunaren aldizkako berrikuspena egingo da, hartutako ekintzek aurreikusitako helburuak lortu dituzten ebaluatuz. Prozesu honek ikasitako ikasgaiak dokumentatzea barne hartuko du, etorkizuneko ekintza-planak informatzeko eta helburuak eta estrategiak lortutako emaitzen arabera doitzeko.

6.ERRONKA GARBIA

6.1. Ekitaldi jasangarriagoak

MB Sariak eta Mustpro Topaketa ekimenek dute jasangarriagoak izateko potentzial nabariena. MB Sariak, Euskal Herriko musika-sektorearen erreferentziazko ekitaldia izanik, inpaktu mediatiko handia du eta prestigioa dakar, beraz, ingurumen-konpromisoa erakusteko plataforma bikaina da. Bestalde, Mustpro Topaketa sektoreko profesionalen bi eguneko topaketa izanik, mugikortasun, energia eta materialen kontsumo esanguratsua du, eta ondorioz, inpaktua murrizteko aukera paregabea eskaintzen du.

6.1.1. Inpaktu nagusiak eta neurri eraginkorrenak

MB Sariak

- Inpaktu nagusiak: Parte-hartzaileen mugikortasuna, energiaren erabilera, hondakinen sorrera eta catering zerbitzua.
- Neurri eraginkorrak: Garraio publikoaren sustapena, tokiko hornitzaileak lehenestea, hondakinen bereizketa, energiaren kontsumo efizientea eta catering zerbitzuan menu jasangarriak eskaintzea.

MUST +PRO Topaketa

- Inpaktu nagusiak: Parte-hartzaileen mugikortasuna, ostatuak, energiaren erabilera, hondakinen sorrera eta catering zerbitzua.
- Neurri eraginkorrak: Erronka Garbiaren sei jarduera-ardatzetan (Mugikortasuna, Energia, Ura, Erosketak, Azpiegiturak eta Hondakinak) oinarritutako neurriak ezartzea, hala nola: garraio publikoa eta partekatua sustatzea, energia-efizientziako teknologia erabiltzea, ur-kontsumoa murrizteko sistemak instalatzea, erosketa berdearen irizpideak aplikatzea hornitzaileak hautatzean, azpiegitura berrerabilgarriak lehenestea, eta hondakinen bereizketa eta kudeaketa egokia ziurtatzea.



6.2. Erronka Garbia: laguntza-tresna

Erronka Garbia Eusko Jaurlaritzak, Ihobe-ren bidez, bultzatutako ekimena da, ekitaldien ingurumen-inpaktua murrizteko metodologia eta ziurtagiria eskaintzen duena. MBrentzat bereziki lagungarria izan daiteke honako arrazoiengatik:

- Metodologia egituratu bat eskaintzen du ekitaldien ingurumen-inpaktuak identifikatu eta kudeatzeko
- Ekitaldien planifikaziotik hasi eta ebaluazioraino zabaltzen diren ekintza-ildoak definitzen ditu
- Ziurtagiria lortzeko prozesua eta jarraibideak ezartzen ditu
- Erakundeen arteko sare bat sortzen du ezagutza eta esperientziak partekatzeko

6.2.1. Prozesua

Erronka Garbia ziurtagiria lortzeko prozesu osoa honela egituratzen da:

- 1. Eskaeraren aurkezpena:** Erakundeak eskaera-formularioa bete eta lhobera bidali behar du. Eskaera onartuta, behin-behinean Erronka Garbia marka erabiltzeko eskubidea jasoko du.
- 2. Ingurumen Jasangarritasuneko Plana aurkeztea:** Dokumentu honetan ekitaldirako aurreikusitako ingurumen-helburuak, neurriak eta ekintza-plana jasotzen dira. Ihobek onartuta, ekitaldian marka erabiltzeko eskubidea eta Erronka Garbia kalkulagailua erabiltzeko sarbidea eskuratzen da.
- 3. Ekitaldiaren ingurumen-auditoretza:** Ihobek ekitaldia gauzatzen den bitartean aurrez aurreko auditoretza egiten du, planifikatutako neurriak benetan inplementatzen direla ziurtatzeko.
- 4. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa:** Ekitaldiaren ostean, erakundeak ekitaldiaren ingurumen-inpaktua kalkulatu behar du Erronka Garbia kalkulagailuarekin.
- 5. Ekitaldiaren Ingurumen Deklarazioa aurkeztea:** Azken txosten batean ekitaldiaren alderdi orokorrak eta kalkulagailuaren inpaktuaren emaitzak jasotzen dira. Ihobek onartu ondoren, ekitaldiari Erronka Garbia ziurtagiria ematen zaio.

Lehenengo urratsak

Adibidez, MB Sariak edo MUST +PRO ekitaldien antolakuntzan Erronka Garbia metodologia erabiltzeko.

- Ekitaldietako arduradunak identifikatu
- Erronka Garbia ziurtagiriaren aurretiazko eskaera egitea
- Ingurumen-inpaktu nagusiak identifikatzea
- Ekintza-plan zehatz bat garatzea neurri espezifikoekin
- Datuak biltzeko sistemak diseinatzea
- Komunikazio eta sensibilizazio estrategia prestatzea

6.2.2. Gakoak eta gomendioak

- **Dedikazio handiko arduraduna:** Erronka Garbia prozesuak lan eta koordinazio esanguratsua eskatzen du. Komenigarria da arduradun bat izendatzea, ekitaldiaren antolakuntza taldean integratuta eta erabakiak hartzeko gaitasuna duena.
- **Aurreplanifikazio egokia:** Ekitaldia baino hiru hilabete lehenago, gutxienez, hasi beharko litzateke prozesuarekin. Aurretik prestatuta egoteak azken orduko inprobisazioak eta zailtasunak saihesten ditu.
- **Kanpo-komunikazioaren garrantzia:** Ekitaldiaren jasangarritasun-estrategia hasieratik komunikatu behar da, bai barnera begira (taldea, hornitzaileak) bai kanpora begira (publikoa, hedabideak). Komunikazioak neurrien inplementazioa errazten du eta ekintzei balio gehigarria ematen die.

7. JARDUNALDIA: MUSIKA ETA INGURUMEN- JASANGARRITASUNA

Euskal musika-sektorean ingurumen-jasangarritasunari buruzko 60 minutuko webinar tematiko bat antolatzea proposatzen da, non egindako diagnostikoaren emaitzak eta Musika Bulegoak garatutako tresnak aurkeztuko diren. Formatu digital honek parte-hartzea maximizatzea ahalbidetzen du, lekualdaketei lotutako inpaktua ezabatzen du eta grabaketa errazten du gerora hedatzeko, sektorea sentsibilizatzeko eta eskuragarri dauden baliabideak ezagutarazteko ekintza eraginkorra izanik.

7.1. Helburuak

Nagusia:

- Musika-sektoreko eragileak praktika jasangarriak hartzearen garrantziaz sentsibilizatzea.
- Sektorearen inpresioak jasotzea etorkizuneko ekimenetarako.

Osagarriak:

- Euskadiko musika-sektorearen jasangarritasun-diagnostikoa aurkeztea.
- "Bira Berdea", "Rider Berdea" eta "Live Berdea" tresnak ezagutaraztea.

7.2. Formatua

60 minutuko webinarra lau bloke nagusitan egituratuko da:

1. Diagnostikoaren aurkezpena (10-15 minutu), non euskal musika-sektorearen ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanaren aurkikuntzak partekatuko diren, puntu kritikoak identifikatuz, hala nola mugikortasuna
2. Tresnen aurkezpena (20-25 minutu), "Bira Berdea", "Rider Berdea" eta "Live Berdea" zehatz-mehatz azalduz, aplikazio-adibide praktikoekin
3. Kasu praktikoak (10-15 minutu), inplementazio-esperientzia errealak eta neurri jasangarriak aplikatzen dituzten artista edo aretoen lekukotzak erakutsiz
4. G&E saio bat (5-10 minutu), non bertaratutakoek zalantzak argitu, kezkak partekatu eta proposatutako neurriak ezartzeko interesa erakutsi ahalko duten.

7.3. Kontu praktikoak

Webinarrak 2025eko ekainean edo uztailan egitea proposatzen da, jaialdiaren denboraldi altua baino lehenagoko aldi estrategikoa, diagnostikoa osatzeko tarte ematen duena eta urtea amaitu aurretik emaitzak ebaluatzeko aukera ematen duena. Bi saio bereizi antolatzea proposatzen da:

1. Bat artistentzat, taldeentzat eta biran dauden profesionalentzat, "Bira Berdea" eta "Rider Berdea"n zentratua;
2. Beste bat areto, jaialdi eta antolatzaileentzat, "Live Berdea"n zentratu.

Webinarren prestaketa eta dinamizazioa BILIBINen esku egongo litzateke, diagnostikoa eta aurkeztutako gidak egiteaz arduratzen den aholkularitza-enpresa, edukiaren transmisioan koherentzia eta sakontasuna bermatuz.

Deialdia Musika Bulegoaren kanalen bidez egingo da, bere kontaktu-datu basea eta euskal musika-sektorean erreferentziazko erakunde gisa duen posizionamendua aprobetxatuz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzean
EHMBE - Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea

